

DIRU-ITURRIAK

MiKXuani enpresaren diru-iturri nagusiak, zapatilen salmentan lortzen direnak izango dira. Gure langile gehienak honetan zentratzen direlako, eta gure baliabide gehienak (guztiak ez esateagatik) erabiltzen dituztelako honetarako.

Aldi berean, gure dendetan, beste enpresa batzuen iragarkiak edo publizitatea izango dugu, adibidez gure garraiorako ditugun kotxeen edo kamioen marka. Enpresa honek kodigo batzuk emango dizkigu, eta pertsona batek, beraien ondasun edo zerbitzu bat erostean, kode hori ematen badute, etekinen zati bat guri dagokigu.

Bestetik, zapatila birziklatuak saltzen ditugunez, eta gure helburuetako bat, kaleko segurtasuna handitzea denez, hilabetero, diru laguntza batzuk eskainiko dizkigute, gure proiektua aurrera eramateko ahalik eta hoberen.

Azkenik, gure web orrian, PayPal-en bidezko donazioak egingo ahal dituzte bezeroek, eta hori eginez gero, pribilegio batzuetaz gozatu ahalko dute; adibidez zapatilen modelo edota kolore berriak aterako direnean, merkatura atera aurretik ikusi eta erosi ahalko dituzte.